

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Antonio Larzabal Urdanpilleta

*Donostia,
Gipuzkoa
(1935)*

Aurkibidea



Biografia



Añorgako Txarabategi baserrian jaio zen, eta bertan bizi izan da beti. Bost senide ziren, bera mutil bakarra. Aita bertakoa zen, eta ama Zubietakoa. Baserritik bizi ziren. Ama San Martin plazara joaten zen tratuarekin; esnea ere partitzen zuen auzoan. Añorga Txikiko eskola publikora joan zen Antonio, baina 13 urterako baserriko lanetan zebilen egun osoz. Ibaetako Maria Luisa Arzallusekin ezkondu zen (ondoan zuen elkarrizketan), eta sei seme-alaba izan zituzten.

Zintak

DON-107

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-04-22
- **Iraupena:** 110 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Agirre, Eli

DON-152

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gallastegi, Maddi
- **Data:** 2013-05-01
- **Iraupena:** 59 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Eskolan Añorga Txikin; zigorrak

- **Erref:** DON-107/004
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:05:14. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Pilota. 13 urterekin baserrira etorri zen lanera. Jose Antonio Pagolarekin ibili zen eskolan umetan; hura seminariora joan zen, eta apaiztu. Añorga Txikin ibili ziren. Erdaraz dena, baita dotrina ere. Neska-mutilak aparte. Maisua, Don Jesus Ruiz. Makilarekin jotzen zien. Beldurra zioten, eta apaizari ere bai. Dena bekatu zen.</p>

2. Añorga Txikin eskolan; apaizak

- **Erref:** DON-107/007
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:09:26. **Bukatu:** 00:11:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Eskolan zer ikasi zuen. Besoa altxatuta kantatu behar zuten. Beti beldurrez ibiltzen ziren. Ezkutuan egiten zuten euskaraz. Gerora ere Atotxan futbola ikusten euskaraz kontuz. Juan Maria Galarraga apaiza. Apaiz laguntzailearekin arazoak izan ziren, pederasta ei zelako; bidali egin zuten hura.

3. Harremana apaizarekin; berorika, hika, zuka

- **Erref:** DON-107/009
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:12:44. **Bukatu:** 00:15:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Dotrinara astean hirutan joaten ziren hasieran. Parrokoarekin konfiantza zuen, Galarraga. Istilu asko izaten ziren mugarriekin. Hika egiten zion eta berak berorika hari. Aitari zuka eta amari berorika. Arrebei zuka eta hika.

4. Neska eta mutilak aparte

- **Erref:** DON-107/010
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:15:43. **Bukatu:** 00:17:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Pilota eta futbola, umetan. Sokasalto, kanikak. Neskek eta mutilek parte jolasten zuten. Gerora, gaztetxoak zirelarik, Galarraga apaiza hasi zen neska-mutilak sakristian elkartzen.

5. Umetan, txoritan

- **Erref:** DON-107/011
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:17:00. **Bukatu:** 00:19:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Ez du ehizarako aukerarik izan. Umetan bai, ibiltzen zen txoritan. Erreklamoan ez zen ibiltzen. Tranpak nola egiten zituzten azaltzen du. Txoriak jan egiten zituzten. Kilker bila. Kilker loreak.

6. Baserritarren arteko liskarrak

- **Erref:** DON-107/013
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:19:45. **Bukatu:** 00:20:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Inoiz ez ziren joaten sagarrak lapurtzera, baina istiluak izaten ziren baserritarren artean horrelako kontuengatik. Orain hobera egin du horrek.

Transkripzioa

- Eta bihurrikeriarik, ez dakit, lapurreta txikiyak eta holako... ez?
- Ez, sekula ez, sekula ez.
- Ez ziñaten juten beste batzun sagarrak hartzera ta?
- "Qué va", ez, izaten gendun etxian ta, ez. Behin'e ez, behin'e ez.
- Baiña [...] hobiak izaten dia ta...
- Bai, okasiyuak esaten dizut, izaten zian: hemen ni goatzen naizela, por ejemplo, sagarrak hemen ta aldapa ta behean muga, ta sagarrak erori bueltaka ta harren zeara jun, ta bestiak bildu ta bestiak ordun haik harrenak ziala ta holako... Hoik nik esperientzi hoi det betititikan ezta? Baiño asko superatu du horrek, ez hemen bakarrik e? "En general", e?
Gipuzkoan'e bai "en general" superatu in du gauza horrek hobera.
- Ikusten dezu aldaketa?
- Bai, bai, bai, hobera, hobera in du, bai. Nik hola basarri dexente ezautzen ditut, jendia're bai basarrikua. Bade oaindikian'e alkar ezin ikusi hoitakuak, baiño "generalmente" mejoratu in du general, mejoratu in du. Hoi pozgarriya da, mejoratzia.

7. Baserriko bizimodua

- **Erref:** DON-107/014

- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:20:44. **Bukatu:** 00:24:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Umetako lanak baserrian. Itaurrean, goldearekin eta arearekin. Ganadua. Amak esnea partitzen zuen auzoan eta Donostian. Gaur egungo egoerarekin konparatzen du. Esnearen prezioa. Ama autobusean joaten zen plazara, San Martinera. Gero emaztea ere bai. Erraz saltzen zuten. Tratuak. Berdura eta arrautzak.

8. Txerria nola hiltzen zuten

- **Erref:** DON-107/015
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:24:16. **Bukatu:** 00:27:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Txerri bat hiltzen zuten urtean. Auzoko aitona bat ibiltzen zen txerri hiltzen, Bidarteko Joxe Izagirre. Etxekoek laguntzen zioten. Nola hiltzen zuen. Odola bildu. Sutan erre, etxe atarian, eta garbitu. Txerrikiak. Hesteak errekan garbitu, odolkiak. Gibela jateko ohitura.

9. Txerri muinak eramatera; propina

- **Erref:** DON-107/016
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:27:27. **Bukatu:** 00:30:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Txerrikiak gatzetan. Txerri muinak auzokoei. Propina ematen zieten batzuetan. 19 urterekin ere amak ez zion dirurik ematen; arrebak ematen zion, ezkutuka. Ama zorrotza zen. Behin amak eman zion belarrondokoa, 23:30ean etxera joan zelako. Jolas Etxeko kidea zen, baina ez zuen asko parte hartzen hango ekintzetan.</p>

10. Sukalde lanetan ama ibiltzen zen; lanak eta otorduak

- **Erref:** DON-107/017
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:30:46. **Bukatu:** 00:34:30

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Odolkiak eta txorizoak amak egiten zituen. Lehortzen jartzen zituzten gero. Talo-esneak. Ama ibiltzen zen sukaldean. Amparo arrebak lan asko egin zuen etxean. Bere lanak: behiak jeztea eta gobernatzea. Belarra moztera joateko, ardo zuria eta txokolatea. Amak ez zuen siestarik egiten.

11. Belar meta egiten; ganaduaren jatena

- **Erref:** DON-107/019
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:34:40. **Bukatu:** 00:37:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Arratsaldeko lanak, baserrian. Belarra bildu, meta egin... Tantaia. Ganadua etxean egoten zen, eta jatekoa ekarri behar zitzaien; gerora bera hasi zen behiak larrera ateratzen. Behien jatena: arbia, erremolatxa... Elurra. Azpiak egiteko, garoa.

12. Behiak zezenetara

- **Erref:** DON-107/020
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:37:51. **Bukatu:** 00:40:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Behiak zezenetara Igarara eramaten zituzten, oinez. Lasartera eramaten zuten idia ferratzera. Autorik ez zebilen orduan errepidean. "Susara egotea". Bidarteko aitona laguntzen zien txekorrak zetozenean. Donostiako al baitaria.

13. Behien gaixotasunak: hanka-mina, errape-mina...

- **Erref:** DON-107/021
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:40:15. **Bukatu:** 00:41:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Behien gaixotasunak. Hanka-mina. Errape-minarentzat, pasmo belarra. Akainak; arra ateratzen zen barrutik.

Transkripzioa

- Eta ze gaixotasun eta izaten ziran?
- Behiyakin?
- Bai.
- Bueno, hola gaixotasun fuerteik ez zan izaten: hanka-miña. Hanka-miña zan hanketan harrapatzen zuen sarna bezela iten zuen, eta hanka-miña esaten zan. Eta ordun galaziya zeon etxetikan ganaua ateratzia hanka-miña zeon tokin, ta jartzen zituen ikuilluko atian seiñaliak "etxe hontan hanka-miña dao". Seiñaliak jartzen zituen atian, bai, jakiteko jendiak, bai.
- A bai e?
- Bai, bai. Gaiñuntzian beste hola ez naiz goatzen ni.
- Errape-miñik?
- Bai, errape-miñak bai, gaur'e bai eta ordun'e bai, orduan'e bai. Ta ordun ba beterinariyuai deitu ta botikak hartu; ta geo amak igual preparatzen zun hemen pasmo-belarrakin [...] bat eta harekin igortzi, ta zerbait igortzi ta in ta...
- Eta ez dakit, mamorrhori edo parasitorik edo eukitzen zun ganaduak?
- Bueno, sundarrak... Bai, akaiñak, akaiñak. Hola bitxo batzuk, "generalmente" buru bi izaten zittuen. Ta gero sundarrak, sundarrak dia, bueno, "un grano que sale y revienta". Bitxo bat ateratzen da, ta gaur ez due izaten e?

14. Urik ez etxean: iturrira, errekan arropa garbitzen

- **Erref:** DON-107/022
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:41:59. **Bukatu:** 00:46:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Bizimodua gogorra zen. Urik ez etxean. Bonba bat jarri zuten. Aurretik iturrira joaten ziren eta errekarera ere bai, arropa garbitzera. Garrafoian ekartzen zuten ura. Dutxarrik ez zegoen, eta ahal bezala. Unanoko errekan arropa garbitzen.

15. Añorgako dutxak, ekonomatoa, zinea

- **Erref:** DON-107/023
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:46:00. **Bukatu:** 00:49:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ekonomia eta industria » Langileentzat zerbitzuak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Rezola lantegiko dutxak eta ekonomatua. Irubidera joaten zen dantzara. Zinema gustatzen zaio. Auzoan ere bazen areto txiki bat. "Tarzan". Mezetara ere Añorgan. Eliz mutil ere ibili zen. Amaren izaera: lana bakarrik zuen buruan.

16. Babarruna eta artoa entregatu beharra

- **Erref:** DON-107/024
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:49:40. **Bukatu:** 00:51:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Hozkailurik ez zegoenean, "freskera". Arrautzak karetan jartzen zituzten, ondo mantentzeko. Francoren garaian babarruna entregatu behar zen, eta babarruna garrafoian sartzen zuten, lur azpian. Garirik ez zegoen inguruetan. Ogia erosi egiten zuten. Tabakoa.</p>

Transkripzioa

-Eta lehen, frigorifikorik ez zeon, ta nola iten zenuten janariya ta ondo konserbatzeko?
-Emaztea: Horko hortan zeon freskera bat, ate gain hortan, freskera.
-Freskerakin orduan, eta udan ez zan izango oso freskua?
-Ez, ez. Baiño janik ez zan asko sobratuko ta ordun, ta bueno...
-Eta arrautzak karetan jartzia edo?
-Ah, baita're, baita're. Karetan izateko, geo izateko. Karetan jarri, ta mantenitu iten zun. Ta nik ezautu nun baita're baarruna, Franco garaiyan, baarruna entreatu in bihar izaten zan, artua ta baarruna ta, entreatu bihar izaten zan al gobierno, ezta? Ta ordun etortzen zian a revisar lo que había, ta haik ez ikusteatikan, baarruna garrafoiyian sartu, lurrian zulua in, ta garrafoiyian baarruna konserbatzeko, lurrian zulua inda.
-Lur azpiyan?
-Lur azpiyan, bai. Meta azpin ta, bai.
-Meta azpiyan ere bai?
-Baita're, baita're, ez ikusteatikan.
-Eta hemen entregatu in beharko zenuten?
-Bai ba, entreatu in bihar zan. Artua ta gariya zunak gariya, hemen ez gendun gariik baiño, gariya zunak.
-Hemen inguruan garirik ez zan? Ez zeon ohiturarik, ez?
-Ez, ez zan garirik. Nik ez nun ezautu hemen ingurun gariya.
-Zuk ogiya orduan erosi ingo zenuten?
-Bai bai. Ogiya zana erosi iten zan, bai.
-Baiña gerra ondorengo urte hoietan ogi gutxi.
-Bai, ogiya ta, tabakua're hala izaten zan ordun. Gu aitta fumadore haundiya gendun, herentziya utzi diu baiño, behintzat... Herentziya utzi diu, baiño...

17. Arto bizarrak erretzen

- **Erref:** DON-107/026

- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:51:42. **Bukatu:** 00:52:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Mutikotan arto bizarrak erretzen zituzten. Ezkondu ondoren hasi zen erretzen.</p>

Transkripzioa

-Umetan-eta ez dakit, arta bizarrak erre-eta?
-Ah bai! Baita're, baita're. Bai, bai. Lehenbiziko zeak, paperian jarri, periodikuan igual, bildu ta, pumpa-pumpa, harri tiaka. Itxura in bihar izaten zan ta, bakizu.
-Ez zan izango ba oso ona hori...
-Ni, fumadore geotzikan ezkondu nitzanian ez nun erretzen, geotzik hasi nitzan, hacia los cuarenta, cuarenta y uno... Bai. Beandu hasi nitzan bai, fumatzen. Lehenotik ez nun erretzen. Ez, lehenotik ez nun erretzen. Amak ez zian utziko erretzen, amak ez zian utziko erretzen, Jesus!

18. Ukuilua sukalde ondoan zegoen; komuna

- **Erref:** DON-107/028
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:52:32. **Bukatu:** 00:54:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Etxe barrua nola garbitzen zuten. Ukuilua sukalde ondoan zuten. Erratza pasatzen zuten eta listo. Menda-belarra ohe azpian. Komuna, egurrezkoa, ukuilu gainean. Simaur bezala erabiltzen zuten baratzean.</p>

19. Komuneko paperik ez

- **Erref:** DON-107/030
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:54:55. **Bukatu:** 00:55:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Beste aurrerapen batzuk

Laburpena:

<p>Komuneko paperik ez zegoen. Egunkari zatiak eta trapuak erabiltzen zituzten. Sutan erretzen zuten gero trapua.</p>

Transkripzioa

- Eta kumuneko papelik bazeon?
- Periodikua, baldin bazan, o rebista o...

- Tirak in ta...?
(E)- "Qué va", trapu bat!
- Trapu bat, baita're, baita're, trapu bat izaten zan ta trapu harek, ba, hemen zikiña ta hor pixkat garbixeo baldin bazan harekin, ta hurruna garbiya; ta dana dana zeatzen zanian, su eman ta erre. Geo erre, su eman ta erre.
- Orduan [...]
- Bai, ba, baiño dana hola bueltaka-bueltaka-bueltaka trapuba ta... Bai, hoi izaten zan.
- Eta aza hostuak eta holakorik...?
- Ez gendun guk holako, ez gendun holakoikan, trapuba. Bai.

20. Irubidera dantzara; dantza lotua bekatu

- **Erref:** DON-107/031
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:55:35. **Bukatu:** 00:58:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Irubidera dantzara. 17-18 urterekin hasten ziren joaten. Dantza lotua egiteagatik apaizak errieta gero. Neska zen ezetz esaten zuena normalean. "Faborez" esanda hasten ziren. Kalabazak. Benantzio Azkarate soinu-jotzailea. Konfesalekuan dena jakiten zuen apaizak.</p>

21. Sexuari buruzko informaziorik ez

- **Erref:** DON-107/033
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:58:59. **Bukatu:** 01:02:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Umeak nondik zetozen ez zieten kontaktzen. Umetan kanpora bidaltzen zituzten nagusiek. Paristik. Ez zuten informaziorik. Amak galdetzen zion zeinekin dantza egin zuen. Neska-lagunarekin hasi zenekoa. Konportan ezagutu zuen, eta gero Irubiden ikusten zuen. Etxe laguntza, mendiz.</p>

22. Taberna giroa

- **Erref:** DON-107/036
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 01:04:50. **Bukatu:** 01:07:04

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

Tabernak. Basoerdiak. Gutxi ibiltzen zen karta-jokoan. Ez zen toki batean geldi egotekoa. Añorgako bolatokia. Toka. Ez da apustu zalea.

23. Sagardoa eta pitarra

- **Erref:** DON-107/037
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 01:07:04. **Bukatu:** 01:08:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Baserría » Baserríko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>Inguruan ez zen sagardotegirik, baina etxeetan egiten zuten sagardoa. Dena eskuz egiten zuten. Pitarra nola egiten den, ura botata.</p>

24. Beti asto lanak egiten

- **Erref:** DON-107/039
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 01:08:56. **Bukatu:** 01:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Sagardogintza
- Baserría » Baserríko lanak » Baserríko tresnak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserríko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Bakailaoa gazi-gazi, eta pitar asko edaten zuten. Gerríko minarekin ibiltzen zen, sagar zakuak jasotzearena. Gurdia eta lera. Karroa. Sagarra biltzeko pila egiten zuten lehenengo. Neurria betetzen zuten gero. Ondoren zakura. Karroan jarri. Dolareak non zeuden.</p>

25. Feriara Tolosara; gidabaimena

- **Erref:** DON-107/040
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 01:12:30. **Bukatu:** 01:14:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Baserría » Baserríko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

<p>Feriara Tolosara joaten zen astelehenero, ezkondu ondoren. Hernanikoa

baino gehiago gustatzen zitzaion. Autobusez. Furgoneta erosi zuten. Gidabaimena senar-emazteek biek batean atera zuten. Bideak.</p>

26. Kongregazioak eta konfesioak

- **Erref:** DON-107/042
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:14:20. **Bukatu:** 01:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

<p>San Luisen kongregazioan ibili zen. Zinta zuri-urdina zuten. Konfesatu eta Jauna hartu. Dantza lotua egitea debekatuta zegoen. Pagola lagunari esan ziona. Apaizak galdetzen zuena.</p>

27. Misioak eta ejerzizioak

- **Erref:** DON-107/044
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 01:16:04. **Bukatu:** 01:18:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Misioak eta sermoi beldurgarriak. Frantziskotarrak. Ejerzizioak birritan, Arantzazun. Gustatzen zaio santutegiko isiltasuna. Neska eta mutilak aparte. Bizimodua antzekoa zen toki guztietan.

28. Bertako euskara eta ingurukoak

- **Erref:** DON-107/045
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:18:00. **Bukatu:** 01:19:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Euskara non hasten den aldatzen. Irun, Oiartzun, Nafarroa... Azpeitia. Bertako euskara garbia dela uste du.</p>

Transkripzioa

-Eta euskera, hemengua eta hemen ingurutakua, berdin, berdintsua?

-Bai, bai, euskera bai. Ya Nafar aldea...

-Badaude, hitz batzuk diferente esaten diranak auzo batzutan ala?

-Bueno ez, nik uste det hemen berdin esaten diala, hemen, hemenguak.

Geo notatzen dia batzuk hor, "por ejemplo", Napar aldea eo pixkat hitzak diferentiak esaten dituenak, ezta? Baiño...

-Eta? Nun hasten da euskara aldatzen? Hemendik, ba, ez dakit, Irun aldera junda edo?

-Baita're, Irunen ta ya bai, Oiyartzunen'e bai, Oiyartzunen'e, bai.
-Eta, bestaldera, Tolosa...
-Bai, Tolosan'e, ya ta Azpeiti, "sobre todo" Azpeiti, Azpeiti.
-Eta euskera garbiyena, zure ustez, nungua?
-Bueno nik uste det, hemen euskera ondo, ondo iten dala, uste det e, ez dakit. Oain kalkulatzeko nik ezin nezake hoi esan baiño, euskera garbiya iten dala uste det hemen, bai.
-Bai, bai, nik esango nuke baietz.

29. Errogatibak eta soroa bedeinkatzea; erramua

- **Erref:** DON-107/046
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 01:19:00. **Bukatu:** 01:23:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Errogatibak, ekaitzaren kontra, euria egiteko... Elizan egiten ziren. Urtero apaiza joaten zen soroak bedeinkatzera, udaberrian. Hazirik ez zuten bedeinkatzen. Maiatzeko loreak. Erramua, ekaitz egunetan erretzeko. Ur bedeinkatua. Otoitzak. Arrosarioa, arto zuritzen. Ogiari gurutzeta.

30. Sendabelarrak eta antzinako erremedioak

- **Erref:** DON-107/048
- **Iraupena:** 0:04:52. **Hasi:** 01:25:00. **Bukatu:** 01:29:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Natura » Meteorologia
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Eskapularioak, umetan batez ere. Sendabelarrak: berbena, plantina belarra, pasmo belarra. Belar mina. Osina. Animaliei ere ematen zizkieten infusioak. Animaliek euria eta ekaitza antzematen dituzte. Karetxen gainean zapoa jartzen zuten, bizirik. Auzoko enplasterak pleura sendatu zion arrebari, berbenarekin.</p>

Transkripzioa

-Ez dakit, gaixotasunik ez edukitzeko ta erabiltzen zan zerbait, kutunik edo?
-Bai. Ez dakit, ez naiz goatzen zekin itten zuen, baiño bai.
-Eskapulariyoak edo?
-Baita're, eskapolayoak'e bai, bai. Eskapolayoak bai, bai. Guk, hor, etxian dakaun emakume horrek, bueno andre horrek, horrek eskapolayuak ibiltzen zitun, bai, bai. Zuk'e bai, bai, txikitan bai.
-Hori txikitan?

-Txikitan bai, geroa, geroa're bai bestiak baiño, ya hoi ahitzen jun zan pixkat eta, ahitzen. Pixkana-pixkana jun da normalizatzen, nik esango nuke, hoi jun da.

-Eta sendabelarrak lehen fede haundiya zeukaten, asko erabiltzen ziren ezta?

-Bai, berbena "por ejemplo", berbenak, petxutikan zeonantzako, berbenak, enplastua in, enplastua in ta berbena jarri ta ordun, hark iten zun tiratu pixkat, ta ateatzen zan odol koloria bezela, pixkat, ateatzen zan. Han barrengo zikiña, ateatzen zun, bai. Bai, bai, hoi normal ta, hankian zerbait, "un divieso" eo holakon bat'e atea bazan'e, hua jarri ta harek iten ziyon tiratu, ta hoi iten zan goxatu, bai. Bai, belarrak asko, plantina belarrak, plantina belarrak zertako zian Maria Luisa?

Maria Luisa - Infeziyotako...

-Infeziyuana, bai. Bai, bai, belarrak hoixe.

-Pasmobelarra zertako?

Maria Luisa -Infeziyua...

-Pasmuantzako, pasmuantzako. Gaur'e medizina asko dao e, belarrakin itten duena, medizina asko dao.

-Belarmiña're bai, belar miña, tentsiyuantzat esaten zuen [...] bai tentsiyuantzat.

-Eta osiña?

Maria Luisa -Baita're.

-Osiñan ura, nik ez det, ez det behin'e hartu baiño. Fuertia izango da e, osiñan ura, ez dakit.

-Eta animaliekin ere, erabiltzen zan, erabiltzen zian belarrak.

-Belarrak bai, bai, bai ,bai. Botillakin sartu, ahua iriki, ta botillakin sartu ta, kla-kla-kla-kla edan ta, bai.

-Infusiyua, behiantzat.

-Infusiyua, bai, bai.

-Eta, ez dakit, animalirik edo bazan, ikusiz gero, ez dakit ze txori edo eguraldi txarra etorriko zala eta holako sinismenik, animaliekin lotutakuak?

-Bueno, erasua, erasua baldin badator "por ejemplo", e, hasten da, haizia ta hasten da ta, trumoiya igual hasten da, ta ganaua baldin badao librian, hua "generalmente" juten da, o arbolan azpira, o, atian ondoa etortzen da o, euriya hasten dunian'e bai, atian ondoa etortzen da, ta hori iten du horrek, antzeman diye badatorrela, ganaua.

-Hori aurretik ezta?

-Ganaua, aurretikan, aurretikan bai baiño, lehenbiziko sintomak izaten dia, haizia eo, "hombre", "badator, badator, badator" ta haik badakiye, nola datorren, antzematen diye, bai.

-Eta, ez dakit entzun dezuen sekula, zapua karetxa kentzeko, zapua erabiltzia edo?

-Bai, zapua. Bai, baita're.

-Nola, nola da hori?

-Bueno, zapua jartzen zuan karetxan gaiñian, karetxak baldin bazian, karetxak, eta ordun, zapua, zapua bizik jarri, bizik baiño zeakin, trapubakin ta lotuta, ta hua jarri gaiñian; ta hua akatzen zan bezela, zapua akatzen zan bezela karetxa jun. Hoi ikasi genun guk, nik ez nun behin'e...

-Hori behiyei, hankan edo?

-Bai, bai, ta personai're igual, esaten zuen.

-Personai igual?

-Igual. "Lo que pasa que", zapua ibiltzeko ba bueno, zapatik eta abarkik eta ez daka ezer jazteik eta, "según" nun zitun karetxak, "según" nun zitun. Hemen, ixtarrian eo baldin bazitun eo, zankuan baldin bazitun, ba zankuan bai baiño, hoi esaten zuen ordun.

-Eta bizirik?

-Bizirik bai, eta hua akatzen zan bezela, klaro, janik be ta zapua akatu iten da, hua akatzen zan bezela. Ordun, zeak, e, nik ez det xinixten gauza hoitan baiño, bueno, ez det xinixten, "lo que pasa que", bueno "curanderos" izaten zian, beti izaten zian "un curandero que otro que" holakuak eta bueno.

-Hoi bai, eta enplasterak eta bazeuden?

-Bai, Añorgan bagendun bat, bai, hil zan hua. Bai, enplastera.

-Nola zun izena?

-"A ver", zuk aiseo esango dezu.

Maria Luisa -Angeles Lizarraga.

-Lizarraga bai, Lizarraga, Angeles.

-Eta, kuranderuak ere baziala?

-Ez, hoi kurandera zan, nik kuranderoik, kuranderoik... Nere arreba bati, oaindik bizi da, arreba bati, pleura harrapatu zun, pleura o, zea ta, horrek sendatu ziyon, baiño dana berbenakin.

-Berbenakin?

-Berbenakin, bai. Eztula itten zun ikaragarri ta zea ta, berbenakin, ta ordun berbenakin sendatu ziyon, berbena biltzea jun in biher ta berbenak ekarri ta, bueno, haik txikitu ta, enplastua in ta haik jarri ta. Ateatzen zun zikiña e, bai, nik ikusten nitun nola aitatzen zuenian hua amai ikusten niyon ta, zikiña ateatzen zun. Odola bezela, gorriya, pasmua, bai.

31. Zorriak eta arkakusoak; janzkera

- **Erref:** DON-107/050
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 01:32:00. **Bukatu:** 01:35:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Zorriak eta arkakusoak. Orrazi estua erabiltzen zuten. Platerera botata hiltzen zituzten. Ozpina. Arropa gutxi. 13 urte arte galtza motzekin. Txapela etxerako bakarrik. Gomazko zapatak eta apreta urdinak. Bruxa. Txalekoa. Lutoa.

32. Hiletak eta bataioak

- **Erref:** DON-107/051
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 01:35:41. **Bukatu:** 01:39:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

<p>Hiletak. Zaldi-karroan eramaten zuten. Bizkarrean eramaten zuten elizara gorpua. Kondukzioa. Buruan mantila jarrita emakumeak. Mezetako liburua. Hiru emakume joaten ziren mantua jantzita; etxez etxe erabiltzen zuten. Umea bataiatu ere segituan egiten zuten; linboa. Elizan sartzea.</p>

33. Ijitoak txatarra bila

- **Erref:** DON-107/056
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 01:43:02. **Bukatu:** 01:43:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:

<p>Ijitoak joaten ziren baserriz baserri, Lasartekoak. Euskaraz bazekiten. Txatarra bila. Etxeberria.</p>

Transkripzioa

- Etortzen ziran hona...?
- Honea etortzen zianak zian ijituak, ijituas, "Etxeberrias de Lasarte"; haik etortzen zian, txatarra biltzeko aitzaki hortan, eta bueno ta "badezu etxeoandre, badezu badezu oillo bat, neretzako badezu oillo bat?", eta hola etortzen zian. Goatzen naiz, bai.
- Eta euskeraz bazekiten?
- Bai, bazekiyen, bazekiyen, bazekiyen euskeraz... Betitatican, "los Etxeberria de Lasarte".
- Bai, Etxeberria esaten dute ijito arraza... Eta arrai-saltzaillerik eta hona?
- Ez, ez.
- Hona ez zan etortzen?
- Ez, ez.
- Hau urruti samar?
- Bai, bueno, hemendik ibiltzen giñan iya generalmente, bide txur hontatikan.

34. Aingeru guardako ermita; festak

- **Erref:** DON-107/058
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:44:29. **Bukatu:** 01:46:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Aingeru guardakoaren ermita. Martxoaren 1ean izaten ziren festak han. Erromeria. Txistulariak. Soinu-jotzailea. Igarako festak. Hortxe dago Añorgako muga. Herri-kirolak. Bertsolariak. Basarri eta Uztapide izaten ziren Añorgan.</p>

35. Añorgako festak; Rezolarekin zuten harremana

- **Erref:** DON-107/059
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 01:46:10. **Bukatu:** 01:49:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Uztailaren 18an Julian Rezolak bazkaria ematen zien langile guztiei. Zezenak. Rezolarekin zuten harremana. Toki berezia zuen elizan. Irigoien medikua. Rezola lantegiko hautsa.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-30

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com